

6. HARREMANAK

Gure bezeroekin harreman estuago bat edukitzeko sare sozialak erabiliko ditugu, modu honetan produktuari buruz dena jakin dezakete eta horrela ere eduki ditzaketen zalentzei era errazago batean erantzun ditzakegu, gainera hobetu ditzazkegun gauzen berri jakin dezakegu. Gure gizartean sare sozialak denen esku daude eta gaurkotasun handia dute. Beraz, modu oso ona izan daiteke bezeroek ere gure proposamenarekin lotura handiagoa izateko.

Bezeroek beraien nahiak edo beharrak esan ditzateke baita ere, zer gustatzen zaien, etorkizunean produktua hobetzeko zer egin dezakegun, horrela ere hobetu dezakegu gure produktua etorkizunean hobetzeko eta modu batean ere gure produktuaren “diseinuan” parte hartzea edukiko dute ere.

Bestalde, azaldu dugun bezala, sare sozialen bidez gure deskontu, kupoi eta harpidetzei berri emango dugu, produktua pixkanaka ezagutzen doan heinean. Beherapenak ere bezeroek interes handiago izan dezakete eta era berean beraiekin lotura estuagoa edukitzeko modua izan daiteke.

Guretzako oso garrantzitsua da bezeroekin harreman ona mantentzea, haien beharrak benetan asetzea eta horretarako ezinbestekoa da harremana edukitzea, konfidantza eta egialeztasuna adierazteko, horrela ere haiek seguruagoak sentituko dira.